



**Arartekoaren 2018R-1166-16 Ebazpena, 2018ko apirilaren 11koa. Horren bidez, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eteteko ebazpena berrikusi dezala.**

### Aurrekariak

Pertsona batek kexa aurkeztu du Arartekoan, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria aldi baterako eteteko erabakiarekin ados ez dagoela adierazteko.

Erakunde honetan irekitako kexa-espeditentean dauden dokumentuetatik ondorioztatu da kexagileak 2016ko otsailaren 24an Lanbideren jakinarazpena jaso zuela, eta bere bitartez jakinarazi zitzaioela prestazioaren titularra izateko baldintzak eta/edo betebeharrak betetzen ez zituela detektatu zela. Zehazki, hauek:

*"Hitzarmen hau sinatu duenak eta, dagokion kasuan, Bizikidetzaren Unitateko beste kideek beren Enplegurako Akordio Pertsonalean jasotako laneratze-jardun guztiak bete beharko dituzte, baita gizarte zerbitzuak etxebizitzako, osasuneko edo hezkuntzako sistemek diseinaturik beraien gizarteratzera zuzendutakoak ere, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak haiengana bideratzen dituenen."*

Ondoren, Lanbidek 2016/05/20an (2015/BERR/O20803) bere prestazioen aldi baterako etete-ebazpena bidali zion, honako arrazoiak zirela-eta:

*"Dagokion modalitatean. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular gisa dituen betebeharrak, eta indarreko arauen arabera aplikatu beharrekoak, diren guztiak, ez betetzea: "Titularra urtarrilan eta otsailean gutxitan joan da klasera."*

Ebazpen horren aurka kexagileak berraztertzeke aukerako errekurtsioa aurkeztu zuen Lanbiden 2016ko ekainaren 1ean (ziurtagiriaren erregistro-zk: 2016/163050), eta laburbilduz, alegatu zuen 2010etik (6 urte) erregulartasunez gaztelaniako eskoletara joaten zela Aguraingo "Paulo Freire" Helduen Hezkuntzako Zentro Publikora, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titulartasunari lotutako inklusio-hitzarmenaren barnean. Horrez gain adierazi zuen Lanbidek bere etete-ebazpenaren arrazoi bezala erabili zituen ez-agertzeak modu puntualean gertatu zirela eta justifikatu egin zituela osasun arrazoiak medio.

Kexaren sustatzailearen familia-unitatea kexagileak berak, bere bikoteak eta bere adingabeko 4 seme-alabek osatzen dute, eta bere errekurtsioan adierazi zuen egia zela, urtarrila eta otsailean 8 egunetan ez zela eskoletara joan gaixorik egon zelako. Gainera, azaldu zuen ez ohiko egoera izan zela, eskoletara joatearen esparruaren





erregulartasun barnean betiere, azken bost urteetan zehar egiaztatu dena, prestakuntza-zentroak ziurtatu bezala.

Ikastaroetara puntualki ez joate hori justifikatzeko, berraztertze aukerako errekurtsorekin batera laguntzeko dokumentazioa aurkeztu zuen, hau da, medikuen ziurtagiriak, eta horien bitartez jakinarazi zion Lanbideri patologia medikoaren izaera, *aho-gangako papiloma* izendatua, eta noizbehinka izaten dituen krisietako sintomak hauek izaten dira besteak beste: mina eta hitz egin edo jan ezin izatea. Gainera, kexagileak egiaztatu zuen bere gaixotasunak modu progresiboan okerrera egin zuela, eta ondorioz, gaur egun Osakidetzako itxarote-zerrendan dagoela operatzeko zain.

Errekurtsoa Lanbiden aurkeztu ondoren, kexagileak Arartekoan aurkeztu zuen kexa, eta Arartekoak izapidetzeko onartu zuen, eta ondoren, aurreko egitatei buruzko informazioa eskatu zion Lanbideri. Horrez gain, aurretiko gogoeta batzuk helarazi genizkion. Errepikakorrak ez izatearren, gero aipatuko ditugu. Labur esanda, Arartekoak Lanbideri kasuari buruzko honako alderdien xehetasun gehiago eskatu zizkion: kexagileari diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eteteko legezko arrazoiak (nahiz eta eskoletara modu erregularrean joan izan den), aurretiazko gogoetei buruzko bere balorazioa eta espedientearen egoerari buruzko xehetasunak.

Lanbidek Arartekoak bidalitako lankidetzak eskareri erantzute aldera, Lanbideren zuzendari nagusiak egindako txostena helarazi digu. Honako hau jaso da bertan:

*“Interesdunaren espedienteaz aztertu da, eta egiaztatu da, hain zuzen ere, prestazioaren titularrak ez dituela bete Gizarteratzeko Hitzarmenaren esparruan jasotako obligazioak. Diru-sarrerak bermatzeko errenta Gizarteratzeko Hitzarmenean jasotako betebeharrak sinatu eta betetzearekin lotutako prestazioa da. Hitzarmen hori gizarte-bazterketako arriskua prebenitzera bideratutako tresna da, baita bazterketa pertsonaleko, sozialeko eta laboreko egoera arintzera eta baliabide pertsonak, sozial eta ekonomiko nahikoak ez dituztenen gizarteratzea erraztera ere. Gizarteratzeko Hitzarmen diru-sarrerak bermatzeko errentaren erabiltzaileak laneratzeko oinarrizko tresna da. Formakuntza eta prestakuntza nahikorik gabe, pertsona horiek ez dituzte bizi duten bazterketa-egoeratik ateratzeko mekanismorik. Gizarteratzeko Hitzarmen hori sinatzen oso betebeharrak gutxiren gaineko ardura hartzen da, eta kontuan izaten dira beti bizikidetzak unitatearen ezaugarri jakinak. Kasu honetan, HHI-EPA zentrori titularrak soilik joateko betebeharrak adostu zen; ezkontidea ez, adingabeen zaintza-lanak errazteko. Heziketa-zentroak Lanbideri igorritako bertaratze-parteei (1. eta 2. Dokumentua) erakusten dutenez, 19 egunetik 11tan bertaratu zen (% 58ko bertaratzea), abendutik urtarrilera bitartean.*

*Hori dela eta, 2016/02/24an entzunaldi-izapidea abiatu zitzaion interesdunari. Espediente horren izapideak egin bitartean, jakin genuen heziketako-zentroa “ohiko bertaratzearen” ziurtagiriak ematen ari zela, eta, horien arabera, eskolen %40ra bertaratzea ohiko bertaratzetzat jotzen da. Hori dela eta, Lanbidek erabaki zuen*





*%75etik beherako bertaratzea ezohikotzat jotzea, betebeharrak betetzeari dagokionez. Aurkeztutako alegazioak ikusita (ez dira ezbertaratzeak justifikatzen), gorako adierazitakoa kontuan hartuta, eta otsailean ere egunen %75ean bertaratzeko baldintza ez zuela bete jakinda, diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) prestazioa eta etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) aldi baterako etetea ebatzi da. Idazki hori 2016/05/31n jakinarazi zitzaion interesdunari.*

*Gizarteratzeko Hitzarmenean jasotako neurriak oso garrantzitsuak dira erabiltzaileak gizarteratzeko eta laneratzeko, eta hori kontuan hartuta, pentsatzen dugu ez dela interpretazio murriztailea egin, eta Lanbidek ezin dituela bere gain hartu betebeharrak betetzearen konpromisoa ez betetzeko erabakia hartu duenaren arduragabekeriaren ondorioak, jakinda gainera, zer ondorio izan dezakeen horrek bizikidetzaren unitatearentzat".*

Txosten berean, Lanbidek hauxe adierazi zuen:

*"Bestalde, zure informazio-eskaeraren (e) letrari dagokionez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) prestazioa ekainean berriz ematen hasi zaio, hilabeteko etenaren ondoren".*

### Gogoetak

Espediente honetan aztertzen dena da ea kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12. artikuluan jasotzen diren diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko betebeharrak bete ez dituen, eta beraz, Lanbidek egindako prestazio bien aldi baterako etetea zuzenbidean oinarrituta dagoen edo ez.

Lanbidek kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errentaren aldi baterako etetea justifikatu zuen adieraziz kexagileak ez dituela inklusio-hitzarmenean jasotako betebeharrak bete, urteko prestakuntza-ikastaroetako 8 egunetan eskoletara joan ez zelako.

Hala ere, kexagileak egiaztatu du 6 urte daramatzala ikastaro horietara joaten, eta soilik modu puntualean ez dela joan, gaixotasun bat zela-eta.

1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 7. artikulua (*Gizarteratze Hitzarmenarekin duen lotura*) hauxe adierazten du:

*1.- Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarrizko Errenta emateko, pertsona titulararekin Gizarteratze Hitzarmen bat ezarri beharko da, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 65. artikuluan eta hurrengoetan definitzen diren terminoetan, betiere jasotzen duten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko tresna gisa ulertzen bada.*





Bestalde, Dekretu bereko 12.2.a) artikuluan *titularren betebeharrak* daude adierazita, hauek:

*Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarrizko Errentaren titularrek, artikuluko honen 1. Paragrafoan aurreikusitakoez gain, beste betebeharrak ere izango dituzte:*

*a) Administrazioarekin Gizarteratze Hitzarmen bat negoziatzea eta sinatzea, eta hori betetzea, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen III. tituluaren I. kapituluaren aurreikusitakoaren arabera*

2. Lanbidek Arartekoak egindako informazio-eskaerari erantzunez egindako txostenean, organismo publikoak zehaztasunez adierazi zituen aldi baterako etetearen arrazoiak, etete-ebazpenean adierazi ez ziren datu osagarriak gehituz:

*Espediente horren izapideak egin bitartean, jakin genuen heziketako-zentroa "ohiko bertaratzearen" ziurtagiriak ematen ari zela, eta, horien arabera, eskolen %40a bertaratzea ohiko bertaratzetzat jotzen da. Hori dela eta, Lanbidek erabaki zuen %75etik beherako bertaratzea ezohikotzat jotzea, betebeharrak betetzeari dagokionez. Aurkeztutako alegazioak ikusita (ez dira ezbertaratzeak justifikatzen), gorako adierazitakoa kontuan hartuta, eta otsailean ere egunen %75ean bertaratzeko baldintza ez zuela bete jakinda, diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) prestazioa eta etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) aldi baterako etetea ebatzi da.*

Organismo publikoak hauxe gehitu zuen txostenean:

*"Lanbidek ezin dituela bere gain hartu betebeharrak betetzearen konpromisoa ez betetzeko erabakia hartu duenaren arduragabekeriaren ondorioak, jakinda gainera, zer ondorio izan dezakeen horrek bizikidetzak-unitatearentzat".*

- Lehenengo puntuari dagokionez, erakunde honek uste du kexagilearen aldi baterako diru-sarrerak bermatzeko errentaren ebazpenak adierazitako **"asistentzia baxua"** kontzeptua ez dagoela jasota aplikatu beharreko araubidean eta ez duela legezko oinarririk. Hori bereziki garrantzitsua da prestazioak eteteko ebazpen baten arrazoi nagusia denean, diru-laguntzak bermatzeko errenta bezalako eskubide subjektibo bat aldi baterako eteteari ondorioak sortu ahal dizkiolako, eta horrek babesgabetasuna eragin ahal duelako.
- Era berean, Lanbideren eta "Paulo Freire" helduen prestakuntza zentro publikoaren arteko ikastaroetarako **"agertze erregularren" egiaztagiri-irizpidearen ezberdintasuna** (% 45eko agertzea eta % 75ekoa) ez da aipatzen etete-ebazpenean, baina bai Lanbidek erakunde honi bidalitako txostenean, eta ezberdintasun horrek are gehiago gehitzen du kexagilearentzako konplexutasuna,





nahastea eta babesgabetasuna, eta Arartekoaren iritziz kexagileak ez zuen izan egitateren inguruko ezagutzarik ezta erantzukizunik.

- Bukatzeko, eta era berean, Lanbidek *a posteriori*, kexagilearen inklusio sozialeko hitzarmenaren barneko ikastarorako **% 75eko irizpidea** "agertze erregularra" egiaztatzeko irizpide bakar baliozkotzat hartu zuen eta arrazoï juridiko egokirik gabe, ez da zuzenbidean egokitzen eta ez du segurtasun juridikorik.

Horregatik guztiagatik nabarmendu behar da nahiz eta Lanbidek erakunde honi bidalitako lankidetzatxostenean erreferentzia egiten dion betebeharrak ez betetzeari eta kexagilearen arduragabetasunari, egia dena da kexagileak hitzarmen barneko prestakuntza zentroko ziurtagiri ofizialekin egiaztatu duela 5 urtean baino gehiagoan modu erregularrean joan dela ikastaro horietara, eta horrek konpromisoa eta erantzukizuna dituela adierazten du. Gainera, medikuen ziurtagiriek egiaztatu du ez ohiko moduan ikastaro horietara ez joan izana arrazoï medikoak direla-eta gertatu zela, eta adierazi zuen bere patologia zela-eta komunikatu ezinik egon zela.

Horregatik guztiagatik, Arartekoaren iritziz Inklusio Hitzarmenean hartutako konpromisoak bete direnez, kexagileak ez du maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12.2.a) artikuluan aurreikusitako betebeharra ez betetzeagatiko etete-arrazoirik bete. Era berean, erakunde honen iritziz, abenduaren 23ko 18/2008 Legeko 65. artikuluan eta hurrengoetan zehaztutako aurreikuspenak (Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta Inklusio Sozialerako azaroaren 24ko Legea aldatzen duen 4/2011 Legeak emandako idazkuntzan jasotakoak) bete direla uste du.

3. Aldi baterako etetearen ondorioei dagokienez, kexagilearen familia-unitatearen eraketa dela-eta (bikote bat 4 seme-alaba adingabeekin), Arartekoak nabarmendu egin behar du beti *adingabearen gorengo mailako interesa* kontuan hartu behar dela, Arartekoaren 2/2015 Gomendio Orokorrean, apirilaren 8koan, aztertu zen bezala. Gomendio hori politika publikoetan eta bereziki diru-sarrerak bermatzeko sisteman adingabearen gorengo mailako interesa derrigorrez kontuan hartzeari buruzkoa zen.

Aurretik adierazi dugun bezala, Arartekoak baieztatu du administrazio publiko guztiek derrigorrez bete behar duten betebeharra dela.

Hori aplikatuz, umeak dauden bizikidetzatxostenean eragiten dion prestazio bat eten aurretik umearen eskubideetan eta garapenean neurri horiek izango lituzkeen ondorioak azaldu eta justifikatu beharko lituzkete, eta beste irtenbide batzuk baloratu beharko lirateke.

Modu horretan, eraginpeko familia-unitateen kargura adingabeak daudenean, haurrak pobretzeko prozesuak eta gizarte bazterketako egoera larriak abiaraztea saihestuko litzateke, Arartekoak beste batzuetan adierazi duen bezala.

Kasu honetan Arartekoak jakin du prestazioak berriz ere eman direla etete-hilabetea igaro ondoren. Hala ere, erakunde honek badaki hilabete batean diru-sarrerak





bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria hilabete batean ez jasotzeak eta diru-sarrerarik ez egotean, ondorioak eragin ditzakeela sei kideko familia batean (horietatik 4 adingabeak), beraien beharrak asetzeko modurik ez baitute prestazioetatik haratago.

4. Bukatzeko, Ararteko honek azpimarratu nahi du lehenengo etetea erabaki izanak eta beste etete-hilabete bat egoteak bere bizitza pertsonalean eragin handiagoak izan ditzakeela. Ez da ahaztu behar Diru-sarrerak bermatzeko Errentaren eta Inklusio Sozialeko 18/2008 Legearen 28.3. artikulua bere aldaketarako 4/2011 Legean emandako idazkuntzan aurreikusi egiten duela diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatzeko ezinezkotasuna edozein modalitateetan eta iraungipen egunetik aurrera kontatzen hasita urtebeteko epean, **prestazioa indarrean egon den bi urteko aldian zehar ez betetzeengatik bi etete egon baldin badira.**

Horregatik, kexagilearengan eta bere bizikidetzaren beste etete-arrazoik bat gertatzen bada eta eskubidea berriz eteten bada, aurretiko legezko aurreikuspena aplikatuko litzateke, eta horrela, kexagileak urtebetean ez litzuzke jasoko diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria. Arrisku hori ezin dezakete bere gain hartu gizarte bazterketa egoeran dauden pertsona gehienek.

Horregatik guztiagatik, Arartekoaren iritziz, Lanbidek kexa honetan **araubidearen interpretazio zabalgarría**egin du, ulertu duelako kexagileak prestazioaren titular bezala zituen betebeharrak ez zituela bete 8 eskola-egunetan ez zelako joan bi hilabeteko epean, nahiz eta 2015-2016 ikasturtean erregulartasunez joan zen eta ez-agertze horiek justifikatu zituen arrazoi medikoak zirela-eta. Hori guztia kontuan hartuz erakunde honek ez diola erantzuten aplikatutako araubidearen logikari ezta xedeari ere.

Gogoratu behar da maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 7. artikuluan ezarri zela Inklusio Hitzarmenaren esparruan jasotzaileek hartutako konpromisoak betetzeko duten betebeharraren barne dagoela hauxe: hitzarmena sinatzen duenak edo hala badagokio bizikidetzaren kideek beraien Enplegurako Akordio Pertsonalean jasotako lan-txertaketako ekintza guztiak gauzatu behar dituztela, baita gizarte txertaketarako direnak ere, Lanbidek eratorritako gizarte zerbitzuetako, etxebizitzako, osasuneko edo hezkuntzako zerbitzu sistemak diseinatutakoak. Baina hortik ezin da ondorioztatu osasun arrazoia direla-eta ezin daitekeenik 8 eguneko ez-agertzerik egin.

Era berean, Arartekoak uste du ez dela kontuan hartu Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 4.1. artikuluko **proporzionaltasun printzipio** hau: Administrazio publikoen esku-hartzearen printzipioak jarduera bat garatzeko unean. Izan ere, erakunde honek uste du prestazioak eteteko ebazpena eta ondorioz familiaren beharrak asetzeko diru-sarrerarik ez egotea ez zela proporzioan egin diru-sarrerak bermatzeko eta inklusio sozialerako araubideak nahi duen helburuarekiko, kontuan hartuz bere Bizikidetzaren Unitatean bere kargurako 4 seme-alaba adingabe zeudela.





Kexagileak diru-laguntzak jasotzeko errentaren titular izateko eskubidearen betebeharrak bete dituzenez, Arartekoaren iritziz ez du bete eteteko arrazoi batik ere.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Arartekoak honako hau aurkeztu dio Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:

### **GOMENDIOA**

Arartekoak gomendatu du kasu honetan diru-sarrerak bermatzeko errenta aldi baterako etetea erabaki zuen ebazpena berrikusteko, indarrean dagoen araudia betez ez duelako ez bete diru-sarrerak bermatzeko errentaren jasotzaile izateko betebehar batik.

